



Usurbilgo Udala



2014KO AZAROAREN 25EAN EGINDAKO OHIKO BATZARRALDIAREN AKTA

BERTARATUAK

Alkate-Lehendakaria

Mertxe Aizpurua Arzallus A.

Zinegotziak

Alaitz Aizpurua Labaca A.
Josu Portu Alzaga J.
Jone Urdampilleta Urdampilleta A.
Enara Arbizu Irurtia A.
Iñaki Ugarte Aguirre J.
Eustakio Arrojeria Eguzkiza J.
Jose Ramon Furundarena Salsamendi J.
Luismari Ormaetxea Santsiñena J.
Miren Josune Urquia Carrera A.
Josune Urkola Larrarte A.
Ricardo Crespo Rubio J.

Idazkaria: Nagore Sarasola Otermin A.

Ezin-etorria adierazi du: Jose María Rivadeneyra Sicilia Jk.

Arratsaldeko 18:00etan batzarrari hasiera ematen zaio.

Usurbilen, 2014ko azaroaren 25ean, arratsaldeko 18:00etan, Udaletxeko Pleno Aretoan, Usurbilgo Udaleko ohiko Udalbatza Plenoa egiteko goian adierazten direnak lehen deialdian bildu dira.

Bertaratuak bezala goian agertzen diren zinegotziak batzarkide direlarik, Mertxe Aizpurua Arzallus izan da Batzarburua.

1.- 2014/07/29KO OHIKO BILKURAKO AKTAREN ONESPENA.

Batzarkideek, 2014ko uztailaren 29ko ohiko bilkurako akta gehiengoz onartu dute, Jose Ramon Furundarenaren abstentzioarekin eta gainontzekoen aldeko botoarekin.

2.- ALKATETZAKO DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA: 2014KO URRIAREN 20TIK AZAROAREN 14RA (2014/0993 – 2014/1081)

Alkatetzak 2014ko urriaren 20tik azaroaren 14ra bitartean (2014/0993-2014/1081) egindako dekretuen berri eman zaie bertaratutakoei.



Usurbilgo Udala



Zinegotziak jakinaren gainean geratu dira.

3.- BETERRIKO GARAPENERAKO ELKARTEAREN ERAKETA.

Alaitz Aizpuruak puntu honi buruzko azalpenak eman ditu.

Puntu honetan Beterriko Garapenerako Elkartearen eraketarako memoria eta estatutuak onartu nahi direla esan du. 90eko hamarkadatik aurrera Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrri gehienetan elkarlanean oinarrituta eta tokian tokiko figura juridikoak baliatuz garapen agentziak sortu izan direla adierazi du. Gipuzkoan gure eskualdea dela bakarra esan du, hau da, Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte, Urnieta eta Usurbilek osatzen dutena, garapen agentziarik ez duena. Hala ere, hainbat eremutan egindako hitzarmen edo lankidetzen bidez hainbat egitasmo direla aurrera ateratzen direnak.

Azken urtetan, Eusko Jaurlaritzatik finkatutako baldintza batzuk direla eta, enplegua eta turismoa sustatzeko 2011ean hitzarmen bat sinatu zela eskualdeko udalerrien artean adierazi du. Horren baitan eskualdeko enplegu plana eta turismoaren plan estrategikoa garatu direla berri eman du.

Hitzarmen hori bai Foru Aldundiko, bai Eusko Jaurlaritzako, bai Estatuko eta baita Europako diru-laguntzak jasotzeko bide izan dela adierazi du, baina administratiboki sei udalerrien arteko entitate juridiko baten falta horrek eta lankidetzan bakarrik oinarrituta, zailtasun administratibo asko ekarri dituela azken urte hauetan agerian geratu dela azpimarratu du.

Lehen aipatutako 2011ko hitzarmena luzatzen joan direla esan du eta azken luzapenaren baitan hitzarmena 2015eko maiatza arte indarrean dagoela adierazi du. Bertan jasota zegoela esan du, batetik, enpleguari eta garapen ekonomikoari buruzko diagnostikoa egitea eta, bestetik, eskualde mailako egitura juridiko egonkor bat behar ote zen edo ez aztertzea. Lanketa hori azken hilabeteetan burutu dela esan du eta hortik proposatu dena da entitate hori elkarte bat izatea. Modu horretara aukera emango luke udalerrien gaindiko erakunde horretatik bai gaur egun abian dauden egitasmo eta diru-laguntza guztiak bideratzeko eta baita aurrerantzean sortzea aurreikusten diren egitasmoak modu azkarrago batean bideratzea.

Jakinarazi du egitasmo hau gainontzeko alderdiekin urte hasieran hasi zirela konpartitzen eta uda aurretik estatutuen zirriborroa mahaigaineratu zutela. Era berean, udal idazkariarekin eta kontu-hartzailearekin lanketa bat egin dela esan du eta paraleloki eskualdeko alderdi politikoekin baita ere.

Udal idazkariaren eta kontu-hartzailearen txostenak espedientean daudela adierazi du eta beste alderdiei ere pasa zitzaizkiela esan du.



Usurbilgo Udala



Beraien ustez garapenerako sortuko den instituzio edo elkarte hau oso garrantzitsua dela adierazi du egungo egoeran eta, batez ere, baliabideak edukita, kudeaketa egoki eta arinago bat behar duelako guzti honek eta etorriko diren egitasmoek ere.

Gaineratu du batzordetik pasa ondoren bai memoriari eta bai estatutuei aldaketa txiki batzuk egin zaizkiela eta horiek zeintzuk diren azaldu du.

Estatutuetan 35.5 artikulua gehitu dela eta bertan Astigarragan egindako ekarpena jaso dela esan du. Bertan jada legeak esaten duena jasotzen dela esan du, hala ere, berriz jasotzea ez dagoela soberan gaineratu du. Hau da, elkarteak Aurrekontuen Egonkortasun Legeak eta 1/2013 Arau Foralak biltzen dituen zehaztapenak beteko ditu eta baita defizit helburua lortzeko, zorraren kontrola bideratzeko eta gastuaren arauaren inguruan emandako jarraibideak ere.

Halaber, gaineratu du diktamenean 5. puntuan jasotzen den konpromezua, memoriako azken parrafoan jaso dela. Honela dio: “Azkenik Udal Batzak, elkarteak eratu ondoren lortu nahi diren helburuak egikaritzeko administrazio publikoko egitura egokiena zein izan daitekeen aztertzeko konpromezua hartzen du”. Hau Urnietan egindako ekarpena dela zehaztu du.

Jarraian, diktameneko puntuak zeintzuk diren zehaztu du.

Andoainen kasua aipatu du esanez momentu honetan udal honek duen egoera ekonomikoagatik ezin duela elkarteko kide izan.

Diktameneko laugarren puntuari dagokionez, estatutuen arabera Usurbilgo udalari dagozkion bi ordezkariak Bildu alderdiari dagozkiola esan du, eta proposatzen dutena da Mertxe Aizpurua eta Alaitz Aizpurua izatea.

Josune Urkiak argitu du beraien bozka aurkakoa izango dela. Beraien apustua ente publiko bat eratzea dela dio eta ez oraingo elkarteak.

Josune Urkolak adierazi du bere bozka ere aurkakoa izango dela. Arrazoiak batzordean azaldu zituela esan du eta uste du egoera berdinean daudela. Entitate publiko bat izan behar duela uste dute eta ez pribatua hemen proposatzen den bezala.

Bosgarren puntuari dagokionez, memorian jasota dagoela baina “aztertuko dela” jartzen duela, eta horrek ez duela bermatzen zehaztu du entitate hori gero publikoa izango denik.

Bestalde, txostenei dagokionez, egia dela dio Usurbilgo txostenak aldekoak direla baina gainontzeko herrietakoak ere aldekoak izan beharko luketela uste dute, eta momentu honetan aldekoak Usurbil eta Hernanikoak soilik direla zehaztu du. Gainontzekoak nahiz eta kontrakoak ez izan beren gauzak dituztela esan du.



Usurbilgo Udala



Alaitz Aizpuruak zehaztu du Astigarragan ere aldeko txostena dagoela.

Josune Urkolak esan du Astigarragako ez dela aldekoa, baldintza batzuk jartzen dituela zehaztu du. Bestalde, gaineratu du hemen batzordea izan zutenean txosten hori oraindik egiteko zegoela, nahiz eta Alaitzek esan zion bazegoela.

Alaitz Aizpuruak erantzun zion berak bazuela txosten hori.

Josune Urkolak zehaztu dio berak jaso duen txostenak hemen batzordea egin ondorengo data daukala.

Jarraitu du esanez Andoaingoa ere egin gabe dagoela, agian kanpoan geratzen delako izango dela gaineratu du.

Alaitz Aizpuruak azaldu du Andoainek momentu honetan ez dituela estatutuak eta memoria onartzen, beraz, horiei buruzko Andoaingo txostenik ez dagoela.

Ricardo Crespok adierazi du bere bozka ere kontrakoa izango dela. Proposatzen den forma juridikoa ez dela hoberena esan du, entitate publiko bat izan beharko lukeela uste dute; azken finean, entitate publiko batek entitate pribatu batek baino berme juridiko gehiago ematen dituela adierazi du. Bestalde, aurreikusten da eskualde mailako erakunde bat izango dela eta dagoeneko Lasarteko batzordean ez dela aurrera atera esan du, hori horrela ez dakiela azkenean nola izango den eskualdeko erakunde bat.

Batzarkideek, Hezkuntza, Parekidetasuna eta Garapena Batzorde Informatzaileko diktamena aztertu dute eta gehiengo osoz onartu dute, honako testuaren arabera:

“Esp.zenb.: ID.12/2014-0114

1990eko hamarkadaz geroztik, Euskal Autonomi Erkidegoa udalerrien sustapen eta garapen sozioekonomikoa lankidetzan eta elkarlanean oinarritu da. Udalerriak garapen agentzian elkartu dira, eta tokian tokiko figura juridikoak hartu dituzte.

Beterriko eskualdea Andoainek, Astigarragak, Hernanik, Lasarte-Oriak, Urnietak eta Usurbilek osatzen dute, eta garapen agentziarik ez duen eskualde bakarra da Gipuzkoan.

Eskualdeko udalerrien elkarlana eta sinergia, ordea, ez da ezezaguna Beterriin. Ondorioz, azken hamarkadetan, hainbat lan eremutan egin diren hitzarmenen bidez, Beterriko udalerriek jarduera espezifikoak garatu dituzte elkarrekin.



Usurbilgo Udala



Horien artean, aipagarriak dira enplegua eta turismoa sustatzeko eskualdeko udalerriek azken urteetan izenpetutako hitzarmenak. Eusko Jaurlaritzak finkatutako baldintzarekin bat etorritik, diru laguntzak eskualde mailako egiturek soilik jaso zitzaizkiren eta, ondorioz, udalerriek ezin zituzten zuzenean jaso. Horiek horrela, Beterriko udalerriek, aipatutako diru-laguntzak jaso ahal izateko, hitzarmen espezifikoak egin behar izan dituzte udalaz gaindiko egitura horren gabeziari erantzuteko. Lankidetzaren hitzarmen horiei esker, 2011n, Eskualdeko Enplegu Plana egin zen eta baita Eskualde mailako Turismoaren Plan Estrategikoa ere.

Hitzarmen espezifiko horiek agerian uzten dute horrelako eskualde mailako erakunde bat sortzea oso baliagarria dela Foru Aldundien, Eusko Jaurlaritzaren, Estatuaren edo Europar Batasunaren diru-laguntzak, programak eta politikak bideratzeko. Eta ez dugu ahaztu behar udalaz gaindiko erakunde horiek direla garapen ekonomikoa, soziala eta kulturala bultzatzeko egiten diren politiken erreferentzia nagusia, eta eskala ezberdinetako erakunde politikoaren jardunbideak artikulatzen dituztenak.

Dena den, artikulazio juridiko iraunkor baten gabeziak eta, kasuan kasuan, erabakien zirkunstantzia espezifikoak adosteko beharrak, arazo administratibo asko sortu dituzte garapen sozioekonomikoa eraginkortasunez kudeatzeko garaian.

Aipatutako udalerrietako arduradunek, kudeaketa hobetu nahian, hilabeteak eman dituzte lanean udalerrien arteko lankidetzaren inguruan. Horiek horrela, 2012ko maiatzaren 29an, sustapen ekonomikorako eta enplegurako Lankidetzaren Protokolo Nagusia izenpetu zuten. Protokoloaren lehen estipulazioaren arabera, helburua da, agiria izenpetu duten udalerri guztien artean, enpleguari eta garapen ekonomikoari buruzko diagnostiko bat egitea eta koordinazioa bultzatzea. Protokoloaren arabera, eskualde mailako egitura egonkor bat sortzea komeni den ala ez aztertu beharko litzateke. Protokolo Nagusi horren indarraldia luzatu egin zen 2013an, eta ondorioztatu da beharrezkoa dela eskualdeko lankidetzaren iraunkorra pertsona juridiko baten bidez antolatzea. Izanpetutako Protokoloaren kopia erantsi dugu.

Alabaina, pertsona juridiko hori eratzeko, udalerriek oinarri edo irizpide orokorrak finkatu dituzte alde aurretik. Horretarako Memoria batean jaso da, udalerrien arteko lankidetzaren egonkor honetan zein lankidetzaren arlo edo eremuak jorratuko dituzte, udalerriek jarriko dituzten baliabideak eta sortuko den erakunde berriaren langile-kopurua, udalerrietan izango dituen ondorioak baloratzeko.

Ikusirik, idazkariak eta kontuhartzaileak eginiko txostenak, eta kontuan izanda, apirilak 2ko 7/85, Toki Araubideen Oinarriak onartzen dituen Legearen 22.2.b eta 47.2.g artikulatuak, Hezkuntza, Parekidetasuna eta Garapena Batzordeak, 2014ko azaroaren 6an egindako bilkuran, Enara Arbizu, Alaitz Aizpurua eta Eustakio Arrojeriaren aldeko botoekin, Miren Josune Urquiaren eta Josune Urkolaren abstentzioarekin eta Ricardo Cresporen kontrako botoarekin, gehiengoz, Udal Batzarrari egindako erizpena kontutan hartuta, Udal Batzarrak gehiengo osoz honako erabakia hartu du:

ERABAKIA

Lehenengoa.- BETERRIKO GARAPENERAKO ELKARTEAren Justifikazio Memoria



Usurbilgo Udala



eta Estatutuak onartzea.

Bigarrena.- Aipatu Elkartearen eraketa onartzea. Ezaugarri nagusienak ondorengoak dira:

- Izena: BETERRIKO GARAPENERAKO ELKARTEA
- Kideak: Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbilgo udalerriak.
- Helburuak: Beterriko sustapen eta garapen sozioekonomikoa bultzatzeko eta bertako biztanleen ongizatea bermatzeko jarduerak abian jartzea.
- Ordezkaritza:

Udalerrria	Ordezkaritza%	Ordezkarien botoak	
		1º	2º
Astigarraga	9,16	4,58	4,58
Hernani	35,38	17,69	17,69
Lasarte	32,81	16,41	16,40
Urnieta	11,48	5,74	5,74
Usurbil	11,17	5,59	5,58
Guztira	100		

- Finantziazioa: Udal Foru Funtzaren arabera
- Elkartearen gehieneko dimentsionamendua: gerente bat eta Hernaniko udalerrian egoitza soziala.

Hirugarrena.- Alkatea ahalmentzea behar diren dokumentu publiko nahiz pribatuak formalizatzeko akordio hauek exekutatzeko.

Laugarrena.- Mertxe Aizpurua Arzallus eta Alaitz Aizpurua Labaka Usurbilgo udaleko ordezkarri gisa izendatzea Elkartean.

Bosgarrena.- Elkartea eratu ondoren lortu nahi diren helburuak egikaritzeko administrazio publikoko egitura egokiena zein izan daitekeen aztertze konpromezua hartzea.

Seigarrena.- Beterriko eskualdeko gainerako udalei akordio hau jakinaraztea.

Bozketan honako emaitza jaso da:

Aldeko botoak: Mertxe Aizpurua Arzallus, Alaitz Aizpurua Labaca, Josu Portu Alzaga, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Enara Arbizu Irurtia, Iñaki Ugarte Aguirre, Eustakio Arrojeria Eguzkiza eta Jose Ramon Furundarena Salsamendi.

Aurkako botoak: Luismari Ormaetxea Santsiñena, Miren Josune Urquia Carrera, Josune Urkola Larrarte eta Ricardo Crespo Rubio.



Usurbilgo Udala



Beraz, erabakia gehiengo osoz hartua izan da.

4.- GALDERAK, ESKAERAK ETA MOZIOAK.

Ez da galdera edo eskaerarik egin.

4.1.- EH BILDU, USURBILGO HAMAİKABAT ETA EAJ ALDERDIEK AURKEZTUTAKO MOZIOA: EMAKUMEEI ZUZENDUTAKO BIOLENTZIAREN KONTRAKO NAZIOARTEKO EGUNA.

Enara Arbizuk mozioa irakurri du.

Jarraian, Enara Arbizuk azaldu du eragile feminista bat sortu dela herrian eta aurkezpena hilaren 30ean egingo dutela, Erle Egunean, hain zuzen ere. Hala ere, aurretik nazioarteko egun hau tarteko, hainbat ekintza antolatu dituztela jakinarazi du.

Udalak antolatuta, berriz, maskulinitatearen inguruko tailer bat antolatu zela larunbaterako adierazi du, baina ez zela aurrera atera gizon bakarria bertaratu zelako.

Ricardo Crespok adierazi du mozio hau ez duela sinatu denborarik ez duelako izan lantzeko, baina jakinarazi du sinatuko lukeela guztiz ados baitago testuarekin.

Batzarkideek, mozioa aztertu dute eta aho batez onartu dute, honako testuaren arabera:

“Azaroak 25 dela eta, “Emakumeei zuzendutako biolentziaren kontrako nazioarteko eguna”, ezinbestekotzat jotzen dugu esparru politikoan zein herritarren artean eman beharreko adostasuna eta konpromisoa gauzatzea, biolentzia matxistarik gabeko bizitzaren espazio komunak lortu asmoz. Eta helburu honek, bizitza kolektiboaren kudeaketa antolatzen eta kudeatzen diharduen instituzio publiko guztietan lehentasunezkoa behar du izan eguneroko jardunean.

Aurten berriro ere, modu anitzean gauzatutako eta emakume ugari eragindako biolentzia matxista izan dugu gure artean. Feminizidioa adierazle nabarmenena duen biolentzia matxista hain zuzen ere. Desagertzetik urrundu eta geure jendartearen errotuta dagoen biolentzia matxista honek, aurpegi ugari ditu, tartean eraso fisiko eta sexualak, baina ekonomikoak eta hitzezkoak ere badaudelarik. Aurten ordea, eraso ideologiko eta diskurtsibo ugari izan dugu, hainbat iritzi guneratu eta ordezkari politikoren aldetik.

Horregatik diogu biolentzia matxistari aurre egiteko, bizitzaren esparru orotan berdintasunezko harremanak oinarri izango dituen jendartearen eraldaketa ezinbestekoa dela.



Usurbilgo Udala



Eta zentzu honetan diogu, biolentzia ez litzatekeela gauzatu ahalko, baldin eta onartzen eta posible egiten duen jendarteratze mekanismoak egongo ez balira; hainbatetan biolentzia kontziente edo inkontzienteki arrazoituztat, beharrezkotzat edo saihets ezinezkotzat jotzen baita. Eta honela, erlijioak, hizkuntzak, komunikabideak, familiak eta hezkuntzak biolentzia erauzi dadin, jendarteratze mekanismoen eragile bilakatu behar dira.

Horregatik, emakumeok biolentzia matxistarik gabeko bizitza libreak bizi ahal izateko, burutu beharreko lan eta estrategiek ondorengo urratsetan behar dute izan oinarri:

- Biolentzia matxistari aurre egiteko garaian, emakume eta gizonen arteko bazterkeria estrukturalaren kontrako lanketa hartu oinarri.
- Biolentzia modu anitz eta ugariak bistaratu, biolentzia horiek gauzatzen diren espazio ugariak agerian uztearekin batera.
- Baztertzailleak diren adierazpen eta gauzapeen kulturei aurre egin, eta biolentzia matxistaren eragiletzat jo halakotzat hartuak ez baina badiren fenomeno sozio-kultural eta sinbolikoak, hauen bitartez ematen baita gehienetan biolentzia matxistaren legitimazioa.
- Agerian utzi, prebentzio lana egin eta emango bada aurre egin, beste biolentzia matxista moduei, transfobia, lesbofobia edo homofobiaren modukoei.
- Biolentzia matxistaren aurrean gizonen protagonismoa eta jarrera hartzeak aztertzeraz bultzatu: erasoak zer den eta zer ez den identifikatzeko dituzten arazoak, emakumezkoekin eraikitzen dituzten harremanak, balizko jardunbide matxisten aurreko beraien jarrera, edo eraso matxista baten aurrean har lezaketen jarrera pasiboa erasoak babestu ez arren.
- Prebentzioa ezinbesteko elementutzat hartu, berdintasuna oinarri izango duten harremanak sortu eta eraikitzekeo garaian, hezkuntza formal eta ez formalean eragin beharko dugularik.

Honengatik guztiagatik, Usurbilgo Udalak, honako konpromisoa hartzen du:

- Berdintasun esparruko politikekiko konpromisoa mantendu eta egonkortu, berdintasun politikak garatzeko behar diren giza baliabide eta baliabide ekonomikoak indartuz.
- Udalerrian eman litezkeen ekintza eta jarrera matxisten aurrean, prebentzio eta salaketarako eragile aktibo izan.
- Abian jarri, hedatu edo indartu, emakumeen parte hartze ekitatiboa ahalbideratzen dituzten jai edo jardun sinbolikoak, bai eta gainerako espazio sozio-kulturalak ere.
- Emakumeen ahalduntzea bultzatzen duten gune komunak sortu edota indartu, behar adina baliabiderek eta sare lana sustatuz, ahalduntze eskolak edo emakumeen etxeen modukoak.
- Ahulenak diren guneetan biolentzia matxista eman ez dadin, instituzioen arteko elkarlana bultzatu, baliabide tekniko eta ekonomikoen bitartez: gazteak, adinekoak, etorkinak, nekazal gunekoak, aniztasun funtzionala dutenak, etab.”



Usurbilgo Udala



Bozketan honako emaitza jaso da:

Aldeko botoak: Mertxe Aizpurua Arzallus, Alaitz Aizpurua Labaca, Josu Portu Alzaga, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Enara Arbizu Irurtia, Iñaki Ugarte Aguirre, Eustakio Arrojeria Eguzkiza, Jose Ramon Furundarena Salsamendi, Luismari Ormaetxea Santsiñena, Miren Josune Urquia Carrera, Josune Urkola Larrarte eta Ricardo Crespo Rubio.

Beraz, mozia aho batez onartua izan da.

4.2.- EH BILDUK AURKEZTUTAKO ADIERAZPENA: EUSKARAREN EGUNA 2014. UDALAK HERRITARRAK ZORIONDU ETA EUSKARA SUSTATZEKO KONPROMISOA BERRETSI NAHI DU.

Alaitz Aizpuruak adierazi du adierazpen hau ere EHBildu, Hamaikabat eta EAJ-ren artean adostutakoa izan dela eta udalaren adierazpen moduan aurkezten dutela.

Jarraian, adierazpena irakurri du Alaitz Aizpuruak.

Batzarkideek, adierazpena aztertu dute eta aho batez onartu dute, honako testuaren arabera:

“- Gure udalerria berezia da hizkuntzaren ikuspegitik. Gurean, beste hainbat tokitan ez bezala, nagusi da euskara. Belaunaldiz belaunaldi transmititutako hizkuntza, naturalki erabiltzen dugu eguneroko bizitza.

- Usurbil herri euskalduna da, eta hori herritarrek bermatu duten lorpen bat izan da. Usurbilen, euskaraz bizitzea lehenetsi dugu eta euskararen bizitasuna mantendu dugu. Usurbilen babes sozial zabala dauka euskarak. Oraindik, ordea, badira osotasunez euskaraz bizitzea eragozten diguten hainbat hutsune (lan muduan, administrazioan...). Eta hutsune horiek gainditzeko lan egin nahi dugu.

- Usurbilgo herritarrek bezala, bertako udalak ere euskararen aldeko hautua egina du. Lan handia egin dugu udala euskalduntzeko, eta UEMAKo udalekin batera, erreferentziako udala bilakatu gara euskararen erabilerari dagokionean.

- Gurea bezalako herrien, udalerrri euskaldunen, eginkizuna garrantzi handikoa da euskararen normalkuntza prozesuan. Euskarara nagusi den gutxieneko lurralde hori ezinbestekoa da edozein hizkuntza aurrera ateratzeko. Euskara biziko bada, nagusi izango den lurgunea behar du.

- Edozein hizkuntzak nagusi den esparruak behar ditu. Arnasgune horietan, bilatu beharko du biziberritu nahi den hizkuntzak heldulekua; bai belaunaldiz belaunaldiko trasmisioari, bai hizkuntzaren funtzio komunikatiboari, bai hizkuntzaren balio erreferentzialari dagokionez. Euskararen arnasgune horiek zaindu, sortu eta, hala balitz hedatu ezean, alferrik izango da, seguruenera, gainerako ahalegin oro.



Usurbilgo Udala



- UEMA eta bertako kide garen udalok euskararen arnasmuneak sendotu eta zabaltzeko lanean dihardugu. Izan ere, administrazioaren ardura ere bada gune hauek zaindu eta atzera egin ez dezaten politikak martxan jartzea. Iruditzen zaigu gure herriak badaukala profila euskararen normalizazioan eredu izateko.

- Euskal Herria euskalduna dugu helburu, eta norabide horretan, usurbildik euskarari ekarpen garrantzitsua egin dezakegu. Udalerrri euskaldunetako herritarrok euskararen normalizazioan euskararen hedatzaile papera jokatu behar dugu. Horrela, euskararen arnasmuneak zabaldu eta hedatzeko.”

Bozketan honako emaitza jaso da:

Aldeko botoak: Mertxe Aizpurua Arzallus, Alaitz Aizpurua Labaca, Josu Portu Alzaga, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Enara Arbizu Irurtia, Iñaki Ugarte Aguirre, Eustakio Arrojeria Eguzkiza, Jose Ramon Furundarena Salsamendi, Luismari Ormaetxea Santsiñena, Miren Josune Urquia Carrera, Josune Urkola Larrarte eta Ricardo Crespo Rubio.

Beraz, adierazpen aho batez onartua izan da.

Alkateak adierazi du abenduko plenoa abenduaren 22an egingo dela eta aurretik Ogasun batzordea abenduaren 2an eta 16an egingo dela gaineratu du.

Alkate andreak batzaraldia bukatutzat eman du arratsaldeko 18:30ean eta bilera agiri hau jaso da, Alkateak izenpetuz eta nik, Idazkariak, ziurtatuz.